



Arartekoaren 2024R-1465-23 Ebazpena, 2024ko apirilaren 17koa. Honen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuari gomendatzen zaio kexagileak datu historikoak eskuratzeko eskubidea izapidetu dezala ebazpen arrazoitua erabiliz, beraren interesa balioetsita eta aintzat hartuta, artxibo eta erregistro publikoetara eta ondare historiko eta dokumentaletara sartzeari buruz indarrean dauden araei jarraikiz.

Aurrekariak

1. Arartekoak pertsona baten kexa izapidetzeko onartu zuen, non kexagileak desadostasuna adierazi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak jatorri biologikoari buruzko informazioa eskuratzea ukatu ziotelako.

Zehazki, kexagileak dioenez, 2023ko ekainaren 22an, jatorri biologikoari buruzko informazioa eskuratzeko eskaera aurkeztu zuen, 1922an, Zizurkilgo umezurztegi batean, aita adopzioan utzi zuen aitaldeko amonaren datuak ezagutzeko xedez.

Kexagileak dioenez, aitaren adopzioari buruzko espedienteak eta datuak administrazioaren esku daude, Zizurkilgo Fraisoro haur abandonatuentzako etxean izandako umeordetzeen erregistro-liburuak gordetzen dituztelako. Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako ongintzazko erakundea izan zen Fraisoro etxea, 1903an sortutakoa, eta bazter utzitako edo abandonatutako haurrak hartu zituen, bai eta ama ezkongabeei babesleku eman ere, haurdunaldian eta haurdunaldiaren ondoren laguntza emanda.

Geroago, 2023ko uztailaren 5ean, kexagileak jakinarazpena jaso zuen sail horretako Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza Nagusiari atxikitako Familia Harrerako eta Adopzioko Ataleko Burutzatik. Jakinarazpen horretan, ondokoa erantzun zioten interesdunari:

“Zure eskaerari erantzunez jakin arazten dizugu Aldundia informazioa ukatu beharrean dagoela, zuk dakizun bezala, kontu hau epai judizial irmo baten bidez ebaztuta dagoelako 2018tik eta urte hauetan ez delako aldatu gai hauekin lotura duen legedia (sic)”.

Kexagileak dioenez, 2023ko ekainaren 22an Gipuzkoako Foru Aldundiari bidalitako idazkiak ez du zerikusirik 2018ko prozedura judizial batekin; izan ere, kasu honetan, bere aita zenari buruzko informazio-eskaera bat da, bizi zenean bere jatorri biologikoak eskuratzeko nahia agertu baitzuen.





Horrela, kexagileak berriro ere desadostasuna agertu zuen informazioa eskuratzeko eskaera ukatzeagatik, arrazoibide juridikorik gabeko komunikazio soil bat erabiliz.

2. Kexan azaldutako gertakariak aztertuta, Arartekoak laguntzeko eskabidea igorri zion Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuari, eta, horren bidez, administrazioaren iritzira, 2018ko ebazpen judizial bat zergatik aplikagarria den arrazoitzeko eskatu zion, familia-loturak direla eta, hildakoari lotutako pertsonaren jatorri biologikoari buruzko informazioa eskura dezan ukatzeko oinarri gisa.

Hala berean, defentsa-erakunde honek galdetu zuen hildakoaren jatorri biologikoari buruzko informazioa ukatzeko arrazoiak zein izan diren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren adopzio-espeditetako jatorri biologikoari buruzko informazioa eta beste datu batzuk eskuratzeko protokoloan¹ (aurrerantzean, jatorri biologikoari buruzko informazioa eskuratzeko protokoloa) azaldutako moduan.

Era berean, erakundeak ikertu zuen foru-administrazioak kexagileari zergatik erantzun zion komunikazio soil baten bidez, organo eskudunaren ebazpen formalik emateke, kexagileak eskuratu nahi duen informazioaren ukapenari administrazio-bidean errekurtsua jartzeko aukera emateko moduan, epearen barruan eta eraz.

3. Geroago, administrazioaren erantzun-txostena jaso zen erakunde horren erregistroan.

Txosten horrek adierazten du, lehenik eta behin, departamentuak 2016an ukatu egin ziola kexagileari beraren jatorri biologikoari buruzko informazioa eskuratzea, eta elkarrizketa batean azaldu ziotela zer-nolako ezezko erantzuna jasoko zuen interesdunaren eskaerari dagokionez.

Elkarrizketan, interesdunak aitaren espedientea ikustea izan zuen, ama biologikoa identifikatzen zuen dokumentua izan ezik, informazio hori jasotzeko eskubiderik ez zeukala ulertuta. Dokumentu hori espedientetik kenduko zela jakinarazteaz batera, aurretiaz esan zioten Diputazioak eskaera ezetsi egingo zuela, eta administrazio-ebazpena igorriko ziotela informazio hori eskuratzeko aukera ukatzeko xedez.

Geroago, Gipuzkoako Foru Aldundiak ezezko ebazpena eman zuen, jatorri biologikoari buruzko informazioa eskuratzeko protokoloan azaldutakoari jarraikiz. Interesdunak errekurritu egin zuen ebazpena, eta errekurtsua ere ezetsi zen, administrazio-bidea agortuta.

¹ <https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2015/06/11/c1505465.pdf>



Hala eta guztiz ere, interesdunak administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo zuen administrazioaren erabakiaren aurka egiteko. Epaitegiak interesdunaren uzia ezetsi zuen 2018an.

Arestian aipatu dugun "Informazioa eskuratzeko protokoloan", jatorri biologikoari buruzko datuak jakiteko eskubidea nola dagoen araututa aztertu zuen epaiak; ildo horretan, esandako protokoloak informazio hori emateko eskubidea sortzen duten bi kasu dakartza zehatz-mehatz:

- Adoptatuaren idatzizko baimena izatea edo
- Baimen hori izan ezean eta adoptaturiko pertsona hil bada, espedientean idatziz jasota agertzea adoptatua bizi zen bitartean jatorri biologikoari buruz jakiteko nahia adierazi zuela eta administrazio eskudunak ebaluatzea ondorengoek informazio hori jasotzeko arrazoi justifikatuak dituztela.

Organo judizialak ebatzi zuen auzipetutako autua ez datorrela bat bi kasu horietako batekin ere, eta, gainera, berariaz adierazi zuen lekukoen deklarazioak ezin zirela analogiaz egokiak izan jatorri biologikoari buruzko datuak eskuratzeko borondatea edo nahia egiaztatzeko. Zuzenbideko oinarrietan, epaitegiak honakoa azaldu zuen Diputazioaren jardunaz: *"incurrer en clara extralimitación por extender el derecho a conocer datos sobre los orígenes biológicos de una persona adoptada a los descendientes de la misma bajo determinadas condiciones, algo que el artículo 180 del Código Civil no contempla"*.

Administrazioak Arartekoari emandako erantzunean adierazi duenez, 2023an, interesdunak beste eskaera bat aurkeztu zuen, eta bertan azaldu zuen Arartekoari lege-aldaketa bultzatzeko eskatu ziola, adoptatuen edo tornuko haurren ondorengoei haien senide biologikoen jatorriari buruzko informazioa eskuratzeko modua ahalbidetuta. Interesdunaren arabera, eskaerari erantzunda, Arartekoak esan zion informazio hori eskuratzeko eskubidea daukala (Word formatuko dokumentu bat aurkeztu du, idazpururik eta sinadurarik gabe, eta dokumentu horretan Arartekoak esan diona jaso duela alegatu du).

Eskaera Aholkularitza Juridikoarekin batera aztertu eta gero, eta interesdunak 2016. urtean egindako eskaera bera aurkeztu zuela ikusita, hau da, interesdunaren aitaren espedienterako sarbidea ematea, zeinari administrazio-ebazpenaren bidez erantzun zitzaion modu arrazoituan, Diputazioaren iritziz, ez da aldaketarik gertatu kasuaren inguruabarretan; esan nahi baita, kexagilearen aita hilda zegoen lehen eskaera aurkeztu zuenean, interesdunak aitaren baimenik ez zeukala, eta espedientean ere ez zegoen idatziz jasota jakiteko nahia bazuela. Diputazioaren esanetan, handik hona ez da lege-aldaketarik izan orduan emandako erantzuna ez, beste bat eman daitekeela funtsatzeko.





Aurrekoaz gain, erantzunak adierazten duenez, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 3. zenbakiko Epaitegiak irmo bihurtutako epaia eman zuen, errekurtsu hori ezetsita eta hizpide dugun espedientea ukatzeko ebazpenak berretsita. Beraz, auzi honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuen interesdunaren eskaerari idatziz erantzun behar zitzaiola, gutun baten bidez.

Aurrekoa kontuan hartuta, administrazioaren ustez, 2018ko ebazpen judiziala oinarria da kexagilearekin familia-loturaz atxikitako dagoen hildako pertsonaren jatorri biologikoari buruzko informazioa eskuratzeko aukera ukatzeko, ikusirik geroztik aldaketarik ez dela izan, ez kasuaren inguruabarrei eragiten dienik, ez eta kexagilearen eskaerari aplikatu beharreko legeriari eragiten dionik ere.

Interesdunaren aita 2016an hil zen, eta, beraz, hilda zegoen alabak intereseko informazioa eskuratzeko lehen eskaera aurkeztu zuenean. Gipuzkoako Foru Aldundiak informazioa eskuratzeko lehen eskaera horri erantzun zion, eta Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak berretsi egin zuen, eskatzaileak foru-ebazpenaren aurka jarritako errekurtsua osorik ezetsi zuelarik. Epaitegiak adierazi zuen zuzenbidearekin bat zetorrela, eta osorik berretsi zuen.

Informazioa eskuratzeko ukapena justifikatzea eragotzi duten arrazoiei dagokienez, administrazioak adierazi du 2016an bertan arrazoitu zela, jatorri biologikoari buruzko informazioa eskuratzeko protokoloan jasota dauden baldintzen arabera. Hori dela eta, administrazioak ulertu du kexagileak 2016an aurkezturiko eskaera bera egin zuela 2023an, eta aintzat harturik hura bide judizialean ebatzi zela, Diputazioak adierazi du foru-erakundeak ez duela epai judizial irmoaren bidez erabakitakoa alda dezaketen erabakiak hartzeko eskumenik.

Horregatik, administrazioak adierazi du ebatzitako arazoa dela, eta ezin duela foru-ebazpenik eman kexagileari administrazio-bidean errekurtsua jartzeko aukera ahalbidetzeko, *“ez baitu zentzurik horri buruzko epai judizial irmoa dagoenean”*.

Azkenik, administrazioak honako hau erantsi du erantzun-txostenean:

“Arartekoari interesatzen zaio jakitea, Gorosmendi andrearen kasuari buruz Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak emandako epaiaren ondorioz, Foru Aldundia behartuta egon zela adoptatuen edo expositen ondorengoek aurkeztutako informazio-eskaeren aurrean jarduteko modua aldatzera. Aldaketak murrizketa handiagoa ekarri die ondorengoei beren senideei informazioa eskuratzeko; izan ere, Epaitegiak auto horretan aipatutako zuzenbideko oinarrien artean jasotzen da foru-erakundeak gehiegikeria argia egiten zuela, adoptatutako pertsona baten jatorri biologikoari buruzko datuak ezagutzeko eskubidea haren ondorengoei zabaltzen zielako baldintza jakin batzuetan, Kode Zibilaren 180. artikulua jasotzen ez duen bezala.





Hori dela eta, gaur egun, beste adoptatu edo preso ohiaren ondorengo batek bere familiaren jatorrira sartzeko eskaera egiten duenean, salbu eta interes legitimoa frogatzen badaezake (orain arte Gipuzkoan ez da halakorik gertatu), hirugarren pertsonen nortasun-datuak eskuratzeko aukera ukatzeaz gain, espediente horretako informazio guztia eskuratzeko aukera ukatzen zaio, eta horrek esan nahi du, praktikan, ez zaiola aukerarik ematen ikusteko, ezta bestelako informaziorik jasotzeko ere (bere garaian, Gorosmendi andreaki aukera eman zitzaion, mugekin).

Bestalde, duela gutxi kontsulta egin diegu Espainiako estatuko beste autonomia-erkidego batzuei horrelako eskaerak nola interpretatu eta erantzuten duten jakiteko, eta jasotako erantzunek adierazten dutenez, jarduteko moduak Foru Aldundiaren antzekoak dira, edo are murriztaileagoak ere”.

Beraz, uste dugunez baditugula beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbide-elementuak, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

Kexa honen iturria Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuaren esku dauden espedienteak eskuratzeko eskaera bat da, kexagilearen aitaldeko amonaren (hots, amona biologikoaren) datu pertsonalak ezagutzeko. Izan ere, andre horrek, 1922an, adopzioan utzi zuen interesdunaren aita Zizurkilgo umezurztegia. Aita 2016an hil zen.

Kexagileak bere jatorria ezagutzeko eta bere historia pertsonala berrosatzeko interesa du, egia biologikoa zein izan den jakinda, egiazko nortasuna eraikitzen lagunduko liokeelako; hain zuzen ere, filiazioak islatzen duen egia juridikoa ondo baino hobeto ezagutzen dutelako alde guztiek.

Honako kexa hau behar bezala aztertzeko, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du hasierako gogoeta batzuk egitea (*vide infra* 1-4 gogoetak), kexagileak galdatu duen eta zendutako aitari zegokion eskubide baten titulartasunaren nondik norakoak argitzeko. Jarraian, Arartekoak azalduko du, erakundearen iritziz, egungo araudiak eta jurisprudentziak Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuaren jarduna hobetu dezaketen elementuak badituztela, kexagileak administrazioaren esku dagoen dokumentazioa eskuratzeko egindako eskaera izapidetzeko orduan.

Era berean, defentsa-erakunde honek uste du auzi hau beste ikuspegi batetik interpretatu behar dela (*ikus* 5-8 gogoetak), zehazki, ondare historiko eta dokumentalaren arloan aplikatzekoa den sektoreko legeriaren arabera hildakoen





datuak dituzten artxibo eta erregistroetara sartzeko eskubidearen esparruari atxikita.

1. Baliatu nahi diren eskubideak irakurtzeko eta interpretatzeko gakoak eta kontuan hartu beharreko jurisprudentzia-arauak eta -irizpideak jorratu ondoren, Arartekoak egoki deritzo, lehenik eta behin, kexaren sustatzailea jatorri biologikoaz jakiteko eskubidearen titular ez izatearen arrazoari buruzko gogoeta batzuk azaltzeari. Hori esanda, egokia dirudi departamentu eskudunak eskubide hori aitortzeko eta izapidetzeko ereduak eta tresnak hobetzeko alderdiak ere aipatzea.

Hain zuzen ere, bereizi egin behar dira sorkuntzaren egitate naturala (egia biologikoa) eta lege zehaztutako filiazioa (egia juridikoa), gure zuzenbideak eskubide-berdintasuna bermatzen baitu seme-alabatasun biologikoan oinarrituta (aldez aurretik onartuta, presuntzioak eta abar) eta adopzio bidezko seme-alabatasunean oinarrituta, familia adoptatzaileari dagokionez.

Testuinguru horretan, kexagilearen xedearen helburua ez da errealitate biologikoa eta errealitate juridikoa bat etor daitezen lortzea, eta, beraz, aztertutako kasua ez doakio filiazio-kontu bati, baizik eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (aurrerantzean, GEEA) bizitza pribaturako eskubidean jasotzen duen nortasun pertsonalaren alderdi jakin bat (Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren [8. artikulua](#)) eta espainiar legegileak Espainiako Konstituzioaren (aurrerantzean, EK) [10. artikulua](#) araututako nortasunaren garapen askerako eskubidean oinarritzen du.

Hain zuzen ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak informazioa eskuratzeko eskubidea onartu du, babestutako identitatearen zatia den aldetik, hain zuzen ere, gurasoen jatorria eta nortasuna ezagutzekoa, 8. artikulua, bizitza pribaturako eta familiarrerako eskubideaz diharduenak, dioenari jarraikiz (Odièvre Frantziaren aurka [Sala Handia], 2003, 29. paragrafoa; berrikiago, Cherrier Frantziaren aurka, 2024, 50. Paragrafoa). GEEAren iritziz, jatorria ezagutzeko eskubidea gatazkan dauden beste interes batzuen aurrean baino ezin da mugatu, eta inola ere ezin da erabat mugatu.

Adibidez, 2012ko irailaren 25eko Godelli Italiaren aurkako auzian², Auzitegiak urratutzat jo zuen Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua; autu horretan, Italiako sistemak ama biologikoaren anonimotasuna gordetzera interesa lehenetsi zuen, errekurtsogileak bere jatorria ezagutzeko daukan eskubidea balioesteko tresnarik xedatu gabe, lehenengoaren eskubideari lehentasuna emanda itsu-itsuan. Horrela, Italiak ez zuen orekarik eta proportzionaltasunik ezarri eragindako alderdien interesen artean, eta horrek, gainera, sufrimendu moral eta

² <https://hudoc.echr.coe.int/eng?i=001-113332>



psikikoa ekarri zizkion errekurtsogileari, Europako Hitzarmenak bermatutako oinarritzko eskubideak urratu baitzizkioten.

Espainiako Konstituzioaren [39.2 artikulua](#) ondokoa ezartzen du: *“Botere publikoek, era berean, seme-alaben babespen osoa ziurtatzen dute, hauek legearen aurrean berdinak izanik jatorria alde batetara utziz, eta hauen amena berauon egoera zibila edonolakoa izanik. Legeak posibilitatuko du aitatasunaren ikerketa”*. (Arartekoak azpimarratu du).

Auzitegi Gorenaren 5672/1999 Epaiak, 1999ko irailaren 21ekoak³, adierazi zuen ama biologikoaren identifikazioa ezkutatzea ahalbidetzen zuen Konstituzioaren aurreko erregistro-legeria indargabetuta dagoela gerora sortutako konstituzio-kontrakotasunagatik, zehazki, Erregistro Zibilaren Legearen 47.1 artikulua eta horrekin bat datozen Erregistro Zibilaren Erregelamenduaren 167. eta 182. artikulua.

Aipatutako epaian, aplikatu beharreko araudia aztertu ondoren, Auzitegi Gorenak egia materiala (biologikoa) lehenetsi zuen, egia formalaren (legezko egiaren) aldean. Horrenbestez, lehentasuna eman zion seme-alabek euren aurrekari biologikoak ezagutzeko eskubideari, amak amatasuna eta identitatea ezkutatzeko eskubidearen gainetik.

Epaiaren zuzenbideko oinarrietan, Konstituzioaren aurreko erregistro-araudia aztertu zen, hain zuzen, ama biologikoaren nortasuna bere erabakiz ezkutatzea ahalbidetzen zuena. Eta erabaki hori zalantzan jarri zuen, filiazioaren lotura zehazteko interes publikoko arrazoi larriak aipatuta, ezkutatze horren aurka baitzeuden, muga hori 1978ko Konstituzioa indarrean hasi ondoko indargabetzea aginduz.

Aurrekoa azaldu eta gero, Arartekoak aintzat hartu du aitatasuna eta amatasuna ikertzeko printzipioa legez eta jurisprudentiaren arabera onartuta dagoela, izatezko seme-alabatasuna zehazteko tresna gisa. Jatorri biologikoaren aldarrikapena, beraz, ezagutza hutsa da (jakin nahi izatea), filiazio-asmorik gabekoa, eta, beraz, eskubideak eta betebeharrak erreklamatu gabekoa.

Hurrengo gogoetek azaltzen eta aztertzen dute baloratu beharreko indarreko arauak zein diren, egia materiala eta egia biologikoa argitzeko asmoaren arteko oreka zuzenik ote dagoen aztertze, norberaren nortasunaren xehetasunak eta beste eskubide eta interes kontrajarri batzuk ezagutzeko eskubidean oinarrituta. Hala eta guztiz ere, gogorarazi behar da, alderdi horri dagokionez, jatorri biologikoari

³ [ECLI:ES:TS:1999:5672](#): Auzitegi Gorena, Arlo Zibileko Lehen Sala, 1999ko irailaren 21eko Epaiak, 2854/1994 Errekurtsua.



buruzko informazioa eskuratzeko eskubideari lotutako arauak, xedapenak eta jurisprudentziako irizpideak pertsona bizidunei aplikatu behar zaizkiela, eta, beraz, ez datozela bat egitatezko kasu honekin; izan ere, autu honetan, auziaren aztergaia ez da adingabeek edo adoptatutako adinekoek eskubidea baliatzea, ezpada, dagoeneko hilda dagoen adoptatuaren ondorengo pertsona batek eskubidea baliatzea.

2. Nolanahi ere, kexa sustatu duen pertsonak administrazioaren esku dauden espedienteetarako sarbidea eskatu zuen, aitaldeko amona biologikoaren datuak ezagutzeko; amona horrek, duela 100 urte baino gehiago, adopzioan utzi zuen 2016an hil zen interesdunaren aita.

Kexagileak interesa agertu zuen administrazioaren esku dagoen dokumentazioa eskuratzeko, eta, inguruabar horretan, azaldutako aurrekarien arabera, 2023. urtean egin zuen informazioa eskuratzeko eskaera.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak ukatu egin zion informaziorako eskaera posta elektronikoz, honako hau azalduta:

“2023ko ekainaren 22an jasotako zure idatziaren bidez, hildako aitaren filiazio biologikoari buruzko datuak eskatu dizkiozu Gipuzkoako Foru Aldundiari. Zure esakerari erantzunez jakin arazten dizugu Aldundia informazio ukatu beharrean dagoela, zuk dakizun bezala, kontu hau epai judizial irmo baten bidez ebatzita dagoelako 2018tik eta urte hauetan ez delako aldatu gai hauekin lotura duen legedia. (sic)”.

Erabilitako eskubideari ez zitzaion erantzun ebazpen arrazoitu baten bidez eta kasuari aplikatu beharreko arauen arabera. Arartekoaren ustez, xedapen horiek aztertu egin behar ziren, administrazioak baitio kexagileak ez zuela bere interes legitimoa frogatu. Komunikazioak, beraz, ez zuen prebalentzia-azterketarik egin administrazioak aipatutako interes legitimo horren eta beste interes kontrajarri batzuen artean, eskubide batzuk beste batzuen gainetik badaudela justifikatzen dutenak, indarrean dauden arauen eta doktrina- nahiz jurisprudentzia-irizpideen argitan.

3. Arartekoak egindako galderak direla eta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak erantzun zuen informazioa eskuratzeko eskaera 2018an ebatzi zela administrazioarekiko auzien epaitegi baten epai judiziala izan zela bide, eta harrezkero ez dela gai horiei buruzko legeria aldatu.

Bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi du erakundeak ez duela epai judizial irmo baten bidez erabakitakoa aldatzeko erabakiak hartzeko eskumenik.



Interpretazio horrek esan nahiko luke lehen auzialdi horretan hartutako ebazpen judizial bat izango litzatekeela erabakiak hartzeko oinarria, horren ondoko arau-aldaketak eta jurisprudentzia-interpretazioak kontuan hartu gabe. Horrek alde batera uztea dakar gerora arau batzuk aldatu edo onartu egin direla, aurrerago aztertuko dugun bezala, hizpide dugun egitatezko kasua interpretatzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2018an emandako epai bat eta administrazio horren 2015eko protokolo bat aipatuta, atea itxi omen dio erregulazio onaren printzipioek eskatzen duten aldizkako berrikuspenari eta ebaluazioari (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 9/2015 Legearen [129. artikulua](#)), segurtasun juridikoaren mesedetan, sor daitezkeen kasu, arau eta jurisprudentzia-irizpide berrien aurrean.

Gainera, administrazioak argudiatutakoaren kontrako ebazpen judizial batzuk ere badira, eta horiek eskubideak balioesteko eta haztatzeko irizpide adierazgarriak emango lizkigukete.

Hala, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak, 2011ko irailaren 6ko 1160/2011 Epaia dela bide⁴, aitatasunaren ikerketaren prebalentzia ebatzi zuen, beste eskubide batzuen gainetik, honela argudiatuta:

“Cuarto.- (...) De la lectura de dicho precepto es claro que el legislador ha establecido al acceso a los registros públicos unas excepciones que las agrupa en tres grandes apartados: razones de interés público; intereses de terceros más dignos de protección o porque así lo disponga la ley.

En el presente caso no hay razones de interés público ni lo dispone la ley; por tanto, hay que analizar si los intereses de los terceros son más dignos de protección que los intereses de D^a Concepción a conocer su origen y por tanto la identidad de sus progenitores.

En definitiva, que estamos ante dos intereses dignos de protección; el de los progenitores amparador por el art. 18 de la Constitución que garantiza el derecho a la intimidad personal y el de la actora amparado por el art. 39.2 de la Constitución que establece que la ley posibilitará la investigación de la paternidad.

QUINTO.- La jurisprudencia más reciente viene declarando que el principio de investigación de la paternidad recogido en el art. 39.2 de la Constitución prima sobre el derecho a la intimidad de los progenitores y así la Sentencia del Tribunal Supremo de 21-9-1999 ha declarado inaplicable por inconstitucionalidad sobrevenida del art. 167 del Reglamento del Registro Civil de 1957.

Por otra parte, la pretensión de la hoy actora ningún perjuicio causa ni puede causar a sus progenitores ni a sus hijos ni a la familia pues según alega no

⁴ [ECLI:ES:TSJNA:2011:1160](#)

tiene pretensión de reclamar la filiación (ya tiene su propia filiación pues fue adoptada hace muchos años y sus padres adoptantes han fallecido) ni tampoco pretensiones de tipo hereditario, éstas por cierto en Navarra muy limitadas pues existe la libertad de testar.

SEXTO.- Por el contrario, el conocimiento del origen biológico puede, hoy en día, ser muy conveniente ya que determinadas enfermedades congénitas de los progenitores pueden padecerse con más facilidad por sus hijos, así como el mejor acomodo a efectos de trasplantes de órganos”.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, 2002ko urtarrilaren 21eko 351/2002 Epaia dela bide⁵, norbanako batek Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren Aginduaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa onetsi egin zuen, foru-erakundeak guraso naturalen jatorriari eta nortasunari buruzko datuak eta agiriak eskuratzea ukatu zuela eta. Salak, irmo bihurtutako jurisprudentziarekin bat etorritik, aitatasuna ikertzeko eskubidea lehenetsi zuen guraso naturalen intimitaterako eskubidearen gaineratik, administrazioak datu horien sekretua zaintzeko duen betebeharrak interesdunari berari aurka egin ezin diolarik.

Ebazpenaren oinarrien artean, honako idatz-zati hau nabarmendu behar da:

“...una obligación de sigilo general a todos los servidores públicos de cualquier ámbito que no debe confundirse con la noción misma de acceso a Registros y Archivos, en lo que puede incidir sobre este último, recae tendencialmente sobre la protección de la familia adoptiva frente a la de origen. En cuanto a la expresa mención que dentro de ese contexto se realiza a "los datos de filiación de los acogidos o adoptados", no se podría llegar a otra consecuencia que la de que se está preservando la relación de acogimiento o adopción de la interferencia de terceros, en la misma línea de cautelas que establece la legislación del Registro Civil.

En el caso enjuiciado,-en el que se manejan las disciplinas de tales figuras de derecho familiar aún a pesar de que no conste que la interesada fuese sujeto de las mismas a lo largo de su menor edad, en tanto que son aquellas en cuyo entorno se ha regulado el acceso a los archivos-, debemos de llegar en suma a la conclusión de que si ciertamente la jurisprudencia constitucional y ordinaria destacan que la filiación y la identificación del origen del adoptado forma parte del ámbito de lo íntimo, el sujeto activo de dicha reserva es el propio hijo o adoptado y tal ámbito no le excluiría paradójicamente a él, sino a los demás”.
(Arartekoak azpimarratu du).

⁵ [ECLI:ES:TSJPV:2002:351](#)

Beste auzi batean, Nafarroako Probintzia Auzitegiak ere, irailaren 13ko 195/2011 Epaia dela bide⁶, 2011. urtean, adoptatutako pertsona batek erdietsi nahi zuen sarbidea onetsi zuen, administrazioak defendatutako jarreraren aurka, besteak beste, arrazoi hauengatik:

“(..) Frente a ello de toda relevancia carece el conjunto de normas relativas a la protección de datos de carácter personal, pues sin perjuicio de la misma y de la protección constitucional de la intimidad, esta debe ceder frente al derecho de la persona a conocer su identidad como elemento integrante de su propia personalidad.

La circunstancia de que en el momento de producirse el nacimiento del demandante, se posibilitase que pudiera permanecer oculta la identidad de la madre, en virtud de decisión de la misma, no determina que desde ese momento por el principio de seguridad jurídica en todo momento posterior, se ampare que frente al hijo a este deba mantenerse oculta los datos que figuran sobre su origen biológico, ya no sólo el derecho a la personalidad integra ese conocimiento, como derecho constitucional, sino cuando además y aquí ocurre sin límite legal el derecho ordinario también ha contemplado dicha posibilidad, lo que determina la procedencia de la pretensión del actor”.

Horrenbestez, aipatutako organo judizialen interpretazio-irizpide batzuek aitatasuna eta amatasuna bilatzeko eskubidearen eta intimitaterako eskubidearen artean aukeratu behar dute. Hala ere, kasu honetan, komeni da berriro nabarmentzea adoptatutako pertsonak ez duela datu biologikoak ezagutzeko eskubidea baliatu nahi. Kexagilearen asmoa ere ez da gaur egun bizirik dauden pertsonen datu pertsonalak eskuratzea. Bestela esanda, intimitaterako eskubidea edo datu pertsonalak babesteko eskubidea zaintzeko beharrari lotutako hautatze-irizpidea baztertu egin daiteke, informazioa eskuratzeko uzia galarazteko. Besterik gabe, kexagilea ez delako aldarrikatzen duen ezagutzeko eskubidearen titularra.

4. Beste alde batetik, administrazioak behin eta berriz aldeztu du defentsa-erakunde honi emandako erantzuna, eta adierazi du Diputazioak darabilen jatorri biologikoari buruzko datuak eskuratzeko protokoloak arautu egiten dituela filiazio-datuak eskuratzeko eta datuetarako sarbidea ukatzeko kasuak.

Protokolo hori ez dago esandako administrazioaren webgunean argitaratuta, eta, kontsulta egin ahal izateko, 2015eko ekainaren 11ko [Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 109. zenbakikoan](#), begiratu behar da.

⁶ [ECLI:ES:APNA:2011:302](#):



Jatorri biologikoari buruzko datuak eskuratzeko protokoloa Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Gobernuaren Kontseiluak 2015eko maiatzaren 19an egindako bileran onetsi zen. Diputatuen Kontseiluaren bilkuretako erabakiak Kontseiluaren borondatearen baterako adierazpenak dira (Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakundeen Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko [6/2005 Foru Arauaren](#) 33.4 artikulua) eta, beraz, Arartekoak ez daki zein indar arauemaile duten eta akordio bidez adierazi den borondate hori arauzko hierarkian nola txertatzen den, baina, nolahi ere, egokia dirudi administrazio horrek kontuan har dezan foru-erakundeari eta herritarren eskubideei aplika dakizkiekeen beste arau batzuk badaudela eskuratu nahi den informaziorako sarbidearen inguruko eskaerari erantzuteko. Bereziki, administrazioak emandako erantzunean kexagileak interes legitimorik egiaztatu ez duela esan duelako, baina alderdi hori ez da protokoloan jasotzen, eta, gainera, ez da arautzen zer nolako balioespen-irizpiderik erabiliko dituen administrazioak jokoan dauden beste arau eta eskubide batzuekin alderatzeko.

Administrazioak defentsa-erakunde honi emandako erantzunean adierazi du are murriztaileagoa izan behar zuela, lehen azaldu dugun informaziorako sarbidearen inguruzko uzia ebazteko kontuan hartu ziren arau zibilei erreparatzen baldin badiegu.

Zehazki, Kode Zibilaren (aurrerantzean, KZ) [180. artikulua](#) aipatu du auzia interpretatzeko aintzat hartu behar den erreferentziatzat. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da jatorri biologikoari buruzko datuak eskuratzeko protokoloa 2015eko maiatzaren 19ko erabakiaren bidez onartu zela eta 2015eko ekainaren 11n argitaratu zela GAOn, eta, dena dela, KZren 180. artikulua ondoko lege baten bidez aldatu egin zela: uztailaren 28ko [26/2015 Legearen](#) bidez, hain zuzen, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen Legearen bidez, nazioarteko jarraibideetara egokitzeko, hala nola adingabeen adopzioari buruzko Europako Hitzarmenera, Estrasburgon 2008ko azaroaren 27an eginikora⁷.

26/2015 Lege horrek honela dio atarikoan:

“El artículo 180 refuerza el derecho de acceso a los orígenes de las personas adoptadas, obligando a las Entidades Públicas a garantizarlo y mantener la información durante el plazo previsto en el Convenio Europeo de Adopción, y al resto de entidades a colaborar con las primeras y con el Ministerio Fiscal”.

Testuinguru horretan, 26/2015 Legeak 5. atala aldatu zuen, eta 6. atal berria txertatu zion Kode Zibilaren 180. artikuluari:

⁷ https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2011-12066

“se modifican los apartados 2 y 5 y se introduce el apartado 6 en el artículo 180, que quedan redactados como sigue:

«2. (...).»

*«5. **Las Entidades Públicas** asegurarán la conservación de la información de que dispongan relativa a los orígenes del menor, en particular la información respecto a la identidad de sus progenitores, así como la historia médica del menor y de su familia, y se conservarán durante al menos cincuenta años con posterioridad al momento en que la adopción se haya hecho definitiva. La conservación se llevará a cabo a los solos efectos de que la persona adoptada pueda ejercitar el derecho al que se refiere el apartado siguiente.*

6. Las personas adoptadas, alcanzada la mayoría de edad o durante su minoría de edad a través de sus representantes legales, tendrán derecho a conocer los datos sobre sus orígenes biológicos. Las Entidades Públicas, previa notificación a las personas afectadas, prestarán a través de sus servicios especializados el asesoramiento y la ayuda que precisen para hacer efectivo este derecho.

A estos efectos, cualquier entidad privada o pública tendrá obligación de facilitar a las Entidades Públicas y al Ministerio Fiscal, cuando les sean requeridos, los informes y antecedentes necesarios sobre el menor y su familia de origen»”.

Horrekin, Arartekoak agerrarazi nahi du ez dirudiela egokia denik soilik Kode Zibilaren 180. artikulua aipatzea jatorri biologikoari buruzko informazioa eskuratzeko bidea ezesteari indarra ematen dion arauzko xedapen gisa; aitzitik, egun, badirudi gaurko arauaren esanahia kontrakoa dela, hau da, erakunde publikoek sarbidea bermatu eta erraztearen ildokoa. Alderdi hori ez zen aintzat hartu 2015eko aldaketa hori egin arte.

Horren ondorioz, esan beharra dago **Diputazioaren protokoloa Kode Zibilaren aldaketa horren aurretik onartu zela**, eta egokia dirudiela hura berrikustea, indarrean dagoen legeriak lortu nahi dituen helburuetara egokitzeko xedez.

Nolanahi ere den, Arartekoaren ustez, kasu honi ez zaizkio aplikagarri aurreko lege-xedapenak eta, beraz, Kode Zibilean araututako eskubideak baliatzea, ez eta Diputazioaren protokolo horretan ezarritakoak ere. Bada, eskuratu nahi diren datuen jabe diren pertsonak hilda daude edo, adina dela eta, hildakotzat jo behar dira. Kexagilearen aita 2016an hil zen, eta amona biologikoa ere hilda egongo dela pentsa daiteke, interesdunaren aita adopzioan eman zuenetik 100 urte baino gehiago joan direlako.

Esandakoa dela eta, ez dira eremu zibil horri atxikitako eskubideak balia ditzaketen pertsonak, heriotzak nortasun zibila azkentzea baitakar, Kode Zibilaren [32. artikulua](#) xedatu bezala. Horrela, bada, kasu honetan, ezinezkoa da hildako pertsonen alde aurreko onespenez eta baimenak jasotzeko baldintzak aplikatzea,



kexagileak eskatu duen informazioa eskuratu ahal izateko administrazioak ezarri duen tresna gisa.

5. Jatorri biologikoari buruzko datuak eskuratzeko egungo xedapenak, irizpideak eta protokoloak kexagileak nahi duen moduan aplikatzeko ezintasuna frogatu ondoren, egoki deritzogu, jarraian, gogoeta batzuk azaltzeari, hildako pertsonen datuak eskuratzeko araubideari eta kexaren sustatzaileak baliatutako eskubidearen egokitzapen juridikoari buruzkoak.

Indarrean dagoen datuak babesteko araudiak adierazi egiten ditu kontuan hartu beharreko alderdiak hildakoen datuei dagokienez.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko [2016/679 \(EB\) Erregelamenduaren 27. kontuan hartuzkoak](#), datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, pertsona fisikoak babesteari buruzkoak eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoak (aurrerantzean DBEO), 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duenak, honako hau ezartzen du:

“Erregelamendu hau ez da aplikatuko hildako pertsonen datu pertsonalen babesean. Estatu kideek eskumena dute horien datu pertsonalen tratamenduari buruzko arauak ezartzeko”.

Beraz, bere aplikazio-eremutik kanpo uzten du hildako pertsonen datuen babesa, baina, aldi berean, xedatzen du estatu kideek gai horri buruzko arauak ezartzeko eskumena dutela.

Barne-ordenamendu juridikoan, gai hori Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko [3/2018 Lege Organikoak](#) arautzen du (aurrerantzean, DPBEBLO), eta haren 2.2.b) artikulua xedatzen du lege hori ez dela aplikatuko: *“b) Hildako pertsonen datuen tratamenduei, 3. artikulua xedatutakoa gorabehera”.*

[3. artikulua](#) *“Hildakoen datuak”* babesteko berriazko araubidea dakar, honako hau ezartzen baitu:

“3. artikulua. Hilda dauden pertsonen buruzko datuak.

1. Hilarekin familia-lotura edo izatezkoa dutenek, edo haren jarausle direnek tratamenduaren arduradunarengana edo eragilearengana jo ahalko dute hilaren datu pertsonaletara irispidea izateko eta, hala badagokio, datuak zuzendu edo ezerezteko.

Salbuespen gisa, aurreko paragrafoan aipatzen diren pertsonen ez dute kausatzailearen datuetarako irispiderik izango eta ezingo dute datuak zuzendu edo ezerezteko eskatu hilak berriaz debekatu badu edo lege batek horrela





xedatzen badu. Debeku horrek ez du eragingo jaraunsleek kausatzailearen ondare-datuetara irispidea izateko eskubidean

2. (...)

3. (...)".

Hau da, badira zenbait ahalmen (eskuratzea, zuzentzea eta ezabatzea), pertsonaren heriotzak eragindako nortasun zibilaren azkentzeak eragiten ez dituenak (Kode Zibilaren [32. artikulua](#)).

Erakunde honen iritziz, hildako pertsona baten datuak eskuratzeko eskaeraren inguruabarra, hots, kexagileak egindako eskaeraren inguruabarra, azken finean, haren aitaldeko amonaren datuak eskuratzekoa, araubide espezifiko bat ezartzen duten beste arau aplikagarri batzuen argitan ebatzi behar da. Hau da, mahairatutako kasua aztertu behar da datu biologikoak eskuratzeko eskubidearen beste ikuspegi batetik jorratuta.

Arartekoaren ustez, adopzioei buruzko informazioa dakarten espedienteak interes publikokoak dira, eta horregatik gordetzen ditu administrazioak. Defentsa-erakunde honek ondorioztatzen du, beraz, lortu nahi den sarbidea dokumentazio publikoa eskuratzeko eta gordetzeko arauen arabera ebatzi behar dela.

6. Informazio publikoa, artxiboak eta erregistroak eskuratzeko eskubidea, Konstituzioaren [105.b\) artikulua](#) dioenari jarraikiz, [APELen 13.d\) artikuluan](#) eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (aurrerantzean, GGOL) eta gainerako ordenamendu juridikoak araututako araubide juridiko espezifikoaren arabera izapidetu behar da.

GGOLEk informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko araubide juridiko orokorra ezartzen du, eta horrek dioenez, "pertsona guztiak dira eskubide horren jabe" (atarikoaren 3. atala), aipatutako legearen [14. artikulua](#) ezartzen dituen mugak aintzat harturik. Beraz, informazioa eskuratzeko eskubidearen aitortpena orokorra da; eta egikaritzeko mugak berariazkoak eta zehatzak izan behar dira.

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen aplikazio-eremu subjektiboa GGOLen 12. artikulua mugatzen du, honela: "*Pertsona orok du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 105.b) artikuluan xedatutako eta lege honetan garatutako baldintzetan(...)*". Eskubidearen titulartasunaren aitortpen oso zabala da, eta, gainera, eskubide hori baliatzeko ez da beharrezkoa interes jakinik egiaztatzea, Auzitegi Gorenak ekainaren 2ko 2272/2022 Epaian⁸ ezarri zuen bezala.

⁸ [ECLI:ES:TS:2022:2272](#)

Bestalde, zuzenbidearen eremu objektiboak (13. artikulua) informazio publikotzat hartzen ditu behartutako erakundeen esku dauden dokumentu guztiak, haien formatua edo euskarria edozein dela ere, baldin eta erakunde horiek beren eginkizunak betez egin edo eskuratu badituzte.

Formulazio zabala da eskubidearen aitopenerari eta lege-erregulazioari dagokienez, eta, Auzitegi Gorenaren hitzetan: *“obliga a interpretar de forma estricta, cuando no restrictiva, tanto las limitaciones a ese derecho que se contemplan en el artículo 14.1 de la Ley 19/2013, como las causas de inadmisión de solicitudes de información que aparecen enumeradas en el artículo 18.1 de la misma ley, sin que quepa aceptar limitaciones que supongan un menoscabo injustificado y desproporcionado del derecho de acceso a la información”*.

Horren ondorioz, ez onartzeko arrazoi baten aplikazioa (GGOLen 18. artikulua) **murriztailea izan behar da, eta horrek esan nahi du aplikazioa ezartzeari egoki iritzen dion administrazioak behar bezala justifikatu behar duela**. Beste alde batetik, GGOLen 14. artikulua xedatutako sarbideari aplika dakizkiokeen mugei doakienez, komeni da esatea muga horiek ez dutela berez ukapenaren alde egiten, ez eta inola ere edukiez denaz bezainbatean ere; aipatutako artikulua horrek “aplikatu ahalko direla” xedatzen baitu.

Gipuzkoako lurralde historikoan, gardentasunaren arloko oinarritzko araudia Gobernu Onari buruzko martxoaren 11ko 4/2019 Foru Arauak garatzen du, foru-gobernantza publikoaren esparruan⁹ (aurrerantzean, Gobernu onaren foru-araua).

Aipatutako lege-testuaren 45. artikulua, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeari dagokionez, honako hau adierazten du:

“45. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea.

1. Pertsona guztiak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatu ahal izango dute, 2. artikuluko 1 eta 2 zenbakietan zerrendatutako subjektuen aurrean. Eskubide hori erabiltzeko unean zein horretarako prozeduran jarraitu egingo dira bai foru arau honetan jasotako aurreikuspenak bai aplikagarria den legediak xedatua.

2. Eskubidea baliatzeko ez dago eskaera zertan arrazoitu, ez pertsona interesduna zertan izan, ezta beste inolako eskubide edo interes zilegirik zertan egokitu.

3. Informazioa eskuratzeko eskubidea gauza tze ko prozedurak eskakizun formal txikiak izango ditu, eta erraz eta bizkor garatzeko eta erabakitze modukoa izango da”. (Arartekoak azpimarratu du).

⁹ <https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2019/03/18/c1901573.pdf>

Aipatutako artikulua arabera, erabilitako eskubideari jaramon egiteko prozedurak gobernu onaren foru-arau horren betekizunak bete behar ditu, eta *“bai aplikagarria den legediak xedatua”*.

Gobernu onaren foru-arauaren 46. artikulua sarbidea izateko eskubidearen mugak arautzen ditu, eta, lehen ikusi dugun bezala, muga horiek izaera murriztailea erabiliz aplikatu behar dira. Honela dio:

- “46. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko mugak.*
- 1. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea mugatu edo ukatu egingo da oinarrizko legedian ezarritako baldintzetan.*
 - 2. Muga horiek era murriztaile batez interpretatuko dira, mugak babesten duen ondasun juridiko edo interesari informazio eskuratzeko horrek eragin liezaiokeen kaltea baloratuta (kaltea haztatzeko testa); eta, osagarri gisa, haztatu egingo da informazio eskuratzeko horretarako ba ote den muga justifika tzen duen interes edo ondasunaren gaitetiko interes publikorik (interesak haztatzeko testa).*
 - 3. Edonola ere, informazioa eskuratzeko eskubideari ezarritako mugak bakar-bakarrik legeek zehazten duten denboran zehar aplikatu ahal izango dira, edo justifika tzen dituen arrazoiak dirauen bitartean.*
 - 4. Artikulu hau aplikaturik ematen diren ebazpenek amaiera emango diote prozedurari, eta ebazpen horiei publizitatea emango zaie, betiere dituzketen datu pertsonalak bereizita, pertsona interesdunei zuzendutako jakinarazpenaren ondotik”.* (Arartekoak azpimarratu du).

Bereziki interesgarriak dira aipatutako testuaren 2. eta 3. atalak, eskubideak balioesteko eta haztatzeko arau bikoitza, kaltearen ebaluazioa eta interes publikoaren gaineko ebaluazioa ezartzen dituztelako, administrazioak muga bat aplikatu aurretik beti egin behar dituen.

Nolanahi ere, 45.1 artikulua ezartzen duen bezala, administrazioak kontuan hartu behar du datuetarako sarbide-eskubidea, foru-arauan bertan eta aplikatzeko den legerian ezarritakoaren arabera. Beraz, berriazko araubide bat egon daiteke, eskubideak zaintzeko eta balioesteko beste irizpide batzuk adierazten dituen.

7. Lehen azaldu dugun bezala, kexagileak eskuratu nahi duen dokumentazioa administrazioak duela 100 urtetik gorako aldi gordetako espedienteetan dago.

Arartekoak azpimarratu du dokumentazio hori gordetzeko arrazoiak, hain zuzen ere, interes publikoa duelako dela, eta, beraz, erakundearen ustez, ondare historiko eta dokumentalaren arloko legeria aplikagarri zaiolako.

Ekainaren 23ko [5/2022 Legea](#), Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu Kudeaketa Integralari eta Dokumentu Ondareari buruzkoa (aurrerantzean, Euskadiko Dokumentu Kudeaketari buruzko Legea), lurralde historikoetako sektore publikoari aplikatzen zaio. Sektore hori Administrazio orokorrak eta foru-sektore publiko instituzionalak osatzen dute (2. artikulua), eta honako hau ezartzen du [16. artikuluan](#):

“16. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu Ondarea.

1.– Edozein pertsona fisikok edo juridikok –publiko zein pribatu izan– Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean bere funtzioak edo jarduerak gauzatzean ekoitzi, bildu eta kontserbatutako intereseko dokumentuen multzoak osatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu Ondarea.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu Ondarearen barnean daude sortu zirenetik 50 urte baino gehiagoko antzinatasuna duten titulartasun publiko eta pribatuko dokumentu guztiak.

(...)”. (Arartekoak azpimarratu du).

Ekainaren 14ko 17/2011 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Foru Administrazioaren eremuan dokumentuen kudeaketaren eta espediente elektronikoaren eredu orokorra arautzen duenak¹⁰, dokumentazioaren honako bizi-aldi hau zehazten du:

“14. artikulua. Agirien bizi-zikloa zehaztea.

1. (...).

2. Paperezko euskarria duten agiriei aplikatzen diren bizi-zikloa ondoko artxibogeroa hauen arabera izango da:

a) Kudeaketa artxiboaren etapa: Aldundiko departamentuen egitura organikoko kudeaketa zerbitzu edo unitateen bulegoetan artxibatuko dira agiriak, eta espedienteak ixten direnetik bi urte igarotzen direnean, departamentuko artxibo zentralera transferituko dira, horrelakorik baden kasuetan, edo Artxibo Administratibo Orokorrean, bestelako kasuetan.

b) Artxibo administratiboaren etapa: Agiriak Artxibo Administratibo Orokorrean egongo dira, ezabatzen diren edo artxibo historikoa den Gipuzkoako Artxibo Orokorrean aldatzen diren arte. Etapa honetan mantentzeko epeak ez daudenean zehaztuta kasuan kasuko kontserbazio egutegian, gehienezko epea 25 urtekoa izango da, non eta legedi aplikagarriak besteren bat ezartzen ez duen. Bere artxibo zentrala baduten departamentuek bertan mantendu ahal izango dute dokumentazioa, ezabatu arte, edo, kontserbazio egutegiak ezarritako epea igaro delako, eta horren ezean, gehienezko 25 urteko epe hori igaro delako, Gipuzkoako Artxibo Orokorrean transferitu arte.

c) Artxibo historikoaren etapa: Dokumentazioa Gipuzkoako Artxibo Orokorrean kudeatuko da. (Arartekoak azpimarratu du).

¹⁰ https://egoitza.gipuzkoa.eus/ogasuna/normativa/docs/VL0000023772_20110621.HTML

Aurrekoa ikusita, Arartekoak uste du kexagileak eskuratu nahi duen dokumentazioaren etapa eta bizi-aldi guztiak igaro direla, eta, beraz, balio historikoa duen informazioa dela, eta Gipuzkoako Artxibo Orokorak kudeatu beharko lukeela. Kasu honetan, ez dirudi alderdi hori bete denik, oraindik ere Gipuzkoako Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuak kudeatzen baititu.

Nolanahi ere, azpimarratu behar da administrazioak dokumentazioa gordetzen badu, itxura denez, balio historikoa duelako gordetzen du. Horrenbestez, defentsa-erakunde honen iritziz, titulartasun publikoko dokumentuak eskuratzeko eskubideari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiari aplikatu beharreko araudia bete behar da.

Ildo horretan, Euskadiko Dokumentuak Kudeatzeko Legearen [39. artikulua](#) arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen Sistema osatzen duten artxibo-sistema publikoetan zaindutako titulartasun publikoko dokumentuak eskuratzeko eskubidea, eta horietarako sarbide-araubidea eta aplikatu beharreko mugak ezartzen ditu, honela:

“39. artikulua.– Irispide-eskubidea.

1.– Pertsona guztiek eskubidea dute, hala banaka eta norberaren izenean nola beste pertsona fisiko edo juridiko batzuen izenean eta ordezkari gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen Sistema osatzen duten artxibo-sistema publikoetan gordailututako titulartasun publikoko dokumentuetara irispidea izateko, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu Ondarea osatzen duten titulartasun publikoko dokumentuetara irispidea izateko ere, indarrean dagoen araudian aurreikusitako baldintzetan.

2.– Irispide-eskubidea baliatzeko, ez da beharrezkoa izango interes pertsonala egotea, ez da arrazoitu beharko eta ez da arau batean oinarritu beharko.

3.– Artikulu honetako 1. apartatuan aipatzen den dokumentazioa irispide librekoa izango da. Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen Sistema osatzen duten artxibo-sistemetan zaindutako titulartasun publikoko dokumentuei dagokienez, irispide hori murriztu edo ukatu egingo da kasu hauetan:

a) Dokumentuetan pertsonen intimitateari buruzko informazioa edo legeak bereziki babestutako datu pertsonalei buruzko informazioa badago.

b) Dokumentuetan legeek babestutako sekretu komertzialak, industrialak eta zientifikoak badaude, edo jabetza intelektualaren arloko informazioa badago.

c) Dokumentuetan sekretu ofizialei buruz indarrean dagoen legeriaren arabera sailkatutako gaitzat deklaraturako informazioak badaude, betiere deklarazio hori oraindik ezeztatu ez bada.

4.– Bereziki babestutako datu pertsonalak dituen dokumentu-ondarea osatzen duen dokumentazioa ezin izango da kontsultatu ukitutako pertsonen adostasun espresurik gabe, edo pertsona hori hil denetik 25 urte igaro arte, data ezaguna bada, edo, bestela, 50 urte igaro arte, dokumentuen datatik zenbatzen hasita.



5. (...).
6. (...)" (Arartekoak azpimarratu du).

Aipatutako manua ikusita, Arartekoak ondorioztatu du, lehenik eta behin, ez dela beharrezkoa interes legitimorik dagoenik egiaztatzea dokumentazio historikoa eskuratu ahal izateko.

Gainera, datuetarako sarbideari aplika dakizkiokeen mugei dagokienez, ez dirudi kexa honetan aztertutako gertakariari aplikagarri zaionik, batez ere, intimitatearen eta datu pertsonalen babesari dagokionez; izan ere, jakin nahi den informazioari lotutako pertsonak hil egin dira edo hildakotzat jo behar dira, aurreko gogoetetan azaldu den bezala. Nolanahi ere, 100 urte baino gehiago igaro dira adopzioa gertatu zenetik, umezurztegiaren erregistro-liburu batean jasota geratu zen legez, hau da, 50 urte baino gehiago igaro dira dokumentua sortu zenetik.

Bestalde, interesgarria da esandako legearen 40. artikulua aipatzea, honako hau baitio sarbide-tresnen inguruan:

"40. artikulua. – Irispide-tresnak.

1.– Erabiltzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu Ondareko eta titulartasun publikoko dokumentuak aurkitu eta identifikatu ahal ditzaten eta haietarako irispidea ahalik eta berme handienarekin izan dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko Artxiboen Sistema osatzen duten artxibo-sistemek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Zaintzen dituzten dokumentuak aurkitzeko aukera ematen duten informazioko eta deskribapeneko artxibo-tresnak aditzera ematea.*
- b) Dokumentuen ezabatzeak erregistratzen dituen tresna aditzera ematea.*
- c) Zaindutako dokumentuak kontsultatzeko dauden mugak aditzera ematea.*
- d) Erabiltzaileei aholkuak ematea dokumentazioan dagoen informazioa bilatzeko.*
- e) Erabiltzaileei informazioa ematea erreklamatzeko duten eskubideaz eta irispide-eskubidea ukatu bazaie jarraitu beharreko prozedurez.*
- f) Dokumentuetara irispidea eskatzeko inprimakiak eta prozedura aditzera ematea.*
- g) Herritarrak hornitzea dokumentuetarako irispide-eskubidea erabiltzeko baliabidez eta bitarteko teknikoak". (Arartekoak azpimarratu du).*

Kasu honetan, administrazioak ez zuen informaziorik eman erreklamatzeko eskubideari buruz, ez eta datuak eskuratzeko eskubidea ukatuz gero jarraitu beharreko prozedurei buruz ere.

8. Aipatu diren manuak eta arestian egindako gogoetak ikusita, Arartekoak ondokoak adierazi behar ditu





Lehenengo. Itxura batean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuaren esku dauden adopzio-espeditenteez denaz bezainbatean, kudeaketa-artxiboko eta administrazio-artxiboko aldiak amaitu bide dira.

Bigarren. Kexagileak eskuratu nahi duen informazioak 100 urte baino gehiago ditu eta balio historikoa, kulturala, testigantzakoa edo bestelakoa du, eta, horren ondorioz, administrazioak gorde egin du, interes publikoari eragiten diolako; beraz, informazio hori artxibo historikoaren aldiari dago dagoeneko, eta, hartara, informazio horretarako sarbide-arauak eta, hala badagokio, mugak Euskadiko historia- eta dokumentu-ondareari buruzko araudiak xedatutakora egokitu behar dira.

Hirugarren. Aipatutako sarbide-eskubidea baliarazteko arauak sarbidea mugatzeko baldintzapean batzuk ezartzen dituzte, aplikatu beharreko arauetan alde aurretik zehaztu diren irizpide batzuen arabera. Hala ere, Arartekoaren iritziz, intimitatea edo datu pertsonalak babesteko mugak ez dira aplikagarriak, datuak ezagutu nahi diren pertsonak egitan hil direlako, edo igarotako denbora kontuan hartuta, hildakotzat hartu behar direlako, eta, horrezaz gain, 50 urte baino gehiago joan direlako dokumentua sortu zenetik.

Laugarren. Azkenik, defentsa-erakunde honen aburuz, foru-administrazioak gorde duen dokumentazioa, beraren balio historikoa zaintzeko, arestian aipatutako arauen argitan, aldundiko organo eskudunaren esku egon beharko litzateke, hau da, Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuaren esku. Departamentu horretan dago Kultura Zuzendaritza Nagusia, eta haren atal da Ondare Historiko-Artistikoaren eta Artxiboan Zerbitzua, zeinaren eginkizun orokorra baita Gipuzkoako lurralde historikoko dokumentu-ondarea zaintzea, kontserbatzea eta zabaltzea, bai eta Gipuzkoako lurraldeko artxibo historikoa¹¹ kontsulta dadin erraztea ere.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako gomendio hau egin zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuari:

¹¹ <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gipuzkoako-probintziako-artxibo-historikoa/hasiera?phpMyAdmin=7wkhbXqHew9zde79NPIG7YIt8ac>



GOMENDIOA

Interesdunak datu historikoak eskuratzeko egindako eskaera eta balitu nahi duen eskubidea izapidetu ditzala, ebazpen arrazoitu baten bidez, eta kexagilearen interesa balioets dezala, artxibo eta erregistro publikoetara eta historia- eta dokumentu-ondarera sartzeari buruz indarrean dauden arauen arabera.

Artxibo historikoaren aldian dauden espedienteak balio historikoa duen dokumentazioa gordetzeko eskumena duen foru-departamentura aldatzea azter dezala.

